



L o u R e e d

OPARIA

itzulpena:
Xabier Montoia

BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu

LOU REED

Oparia

itzulpena:

Xabier Montoia

azala:

Nagore Legarreta

Waldo Jeffers onenak emanda zegoen.

Abuztuaren erdialdea zen, bi hilabete baino gehiago zeraman Marsha gabe, beraz. Bi hilabete, eta hiru gutun maiztu eta distantzia handiko bi dei garesti baino ez.

Eskola bukatu eta hura Wisconsinera eta bera Locus, Pennsylvaniara itzuli zirelarik, hark nolabaiteko fideltasuna gordeko ziola zin egin zion. Mutiletan ibiliko zen, baina denbora-pasa baino ez. Leial izango zitzaion.

Baina azken aldian, Waldo kezkatzen hasita zegoen. Kostata lokartzen zen gauez eta lokamuts izugarriak izaten zituen. Ohean esna, jira eta bira edredoi tolestuaren azpian; begiak malkotan.

Hona nola irudikatzen zuen Marsha: emandako hitza likoreak eta neandertalen baten xuxurla gozoak apurtuta, larru-grinaren hondar ferekari azkenean amore emana. Ezin inork hura eraman.

Marsharen desleialtasunaren irudiek jarraitu egiten zioten. Egun argiko sexu fantasiek melatzen zizkieten pentsamenduak. Eta kontua zera zen, beste haiek ez zutela ulertuko neska nola zegoen benetan. Waldok berak bakarrik ulertzen zuen hori. Sen hutsez antzematen zituen haren psikeko bazter eta zirrikitu guztiak. Irribarrea eragiten zion; neskak behar zuen, eta bera ez zegoen haren aldamenean.

Inauteriak hasi baino lehenagoko ostegunean bururatu zitzaion ideia. Edelsontarren soropila moztu berri (dolar bat eta berrogeita hamar zentimoren truke) postontzian begiratu zuen, ea Marshak gutun labur bat, behintzat, bidali ote zion.

Amalgamated Aluminum Company of Americak bidalitako eskutitzaz aparte, eguzki-oihal bat behar ote zuen galdezka, ez zegoen beste ezer. Haiek behintzat arduratzen ziren berarekin.

Enpresa New Yorkekoa zen. Postaz edonora joan zitekeen. Eta orduan tupustean ideia etorri. Ez zeukan Wisconsinera betiko moduan joateko adina dirurik, egia, baina zergatik ez postaz joan? Erraza zen benetan. Pakete batean egingo zuen bidaia, banaketa bereziaz.

Biharamunean supermerkatuara joan zen beharrezko tresneria erostera. Zinta amerikarra eta grapagailu bat erosi zituen, eta neurri ertaineko kartoizko kutxa bat ere bai, bere tamainarako egokia. Ahalik eta gutxien mugituz gustura samar joango zela iruditu zitzaion. Arnas-zulo batzuk, ur pixka bat, beharbada jateko zerbaitea eta, ziur aski, turista baten moduan joatea bezain atsegina izango zen.

Ostiral arratsalderako, Waldo prest zen. Kutxan ondo sartuta zegoen eta hiruretan haren bila joango zirela hitz eman zioten postetxeok. "Hauskorra" idatzi zuen paketearen kanpoaldean, eta barruan kiribilduta zegoela, ondo pentsatutako goma-aparezko enbalajeaz etzanda, Marsharen aurpegia irudikatzen ahalegindu zen, mireshenez eta pozez gainezka atea irekitzean: paketea ikusi, banatzaileari eskupekoa eman, ireki eta, azkenean, horra hor bere Waldo. Musu bat emango zion eta ondoren, beharbada, film bat ikusiko zuten elkarrekin. Zergatik ez zitzaion lehenago bururatu?

Bat-batean esku zakar batzuek paketea hartu eta Waldok gorantz zihoala sentitu zuen. Kolpe batez lurreratu eta kamioia abiatu egin zen.

Marsha Bronson ilea apaintzen bukatu berria zen. Oso asteburu gogorra izan zuen. Gogoratu behar zuen ezin zuela horrela edan.

Hala ere, Billek ez zion kontuan hartu. Dena bukatutakoan, oraindik begirune handia ziola esan zion, kontu naturala zela azken finean, eta, maite izan ez arren, txera baziola. Helduak baitziren biak ala biak. Zer irakatsiko ote zion Billek Waldori! Baina horrek aspaldiko kontua zirudien.

Sheila Klein, Marsharen lagunik minena, arkupeko atletik sartu zen sukaldean.

“Oi, ama, hori sargoria kanpokoan”.

“Bazakinat zer esan nahi dunan, lirdinga eginda nagon!”

Marshak zetazko ertzak zituen bainu-txabusin kotoizkoaren gerrikoa estutu zuen.

Sheilak sukaldeko mahai gaineko gatz ale batzuk hartu zituen hatzaz, miazkatu eta zirkin egin zuen.

“Gatz pilula hauek hartzeko esan zidatenan, baina” eta sudurra zimurtu zuen, “oka egiteko gogoia ematen zidaten.”

Marsha ukitu arinak egiten hasi zitzaion bere kokospeari: telebistan ikusitako ariketa bat.

“Jainko maitea, ezta aipatu ere hori.” Mahaitik altxatu, harraskara joan eta bitamina arrosa eta urdinez beteriko botila bat hartu zuen.

“Nahi al dun? Xerrak baino hobeak omen ditun,” eta orduan saiatu zen belaunak ukitzen. “Ez dinat uste daikiririk berriro edango dudarik.”

Etsi eta telefonoa zegoen mahaitik gertuago eseri zen oraingoan.

“Beharbada Billek deituko din,” erantzun zion Sheilaren begiradari.

Sheilak kutikula bat murtxikatu zuen.

“Bart eta gero, beharbada utziko huela uste ninan”.

“Bazakinat zer esan nahi dunan. Jainko maitea, olagarro baten tankeran ibili zunan! Hatzaparrak leku guztietan!” Besoak jaso zituen bere burua babesteko.

“Kontua dun, halako batean nekatu egiten haizela harekin borroka egiteaz eta, badakin, ostiralean eta larunbatean ez zinan gauza handirik egin eta, beraz, nolabait zorretan nengonan harekin. Ulertzen didan?”

Hazka hasi zen. Sheilak ahoa eskuaz estali zuen, barrezka.

“Bada, egia esan, nik ere, une bat pasatu ondoren,” eta orduan aurrerantz makurtu eta xuxurla egin zion: “Nik ere egin nahi ninan!”

Karkaraka ari zen ordurako.

Istant horretan jo zuen Clarence Darrow-ko postetxeko Jameson jaunak estuko koloreko etxe handi egurrezkoaren txirrina. Marsha Bronsonnek atea ireki zuenean, hark lagundu zion paketea sartzen. Marshak paper zatitxo horiak eta berdeak sinatu zizkion, eta egongelan zegoen amaren diru-zorro beixetik ateratako hamabost zentimoak eman zizkion eskupeko.

“Zer izango dun, zer uste dun?”, galdetu zion Sheilak. Marshak besoak antxumatuta zeuzkan bizkarrean. Egongela erdian zegoen kutxa marroi kartoizkoari begiratu zion.

“Ba, ez zakinat.”

Paketearen barruan Waldok dar-dar egin zuen zirrarez, ahots motelduak entzunez. Sheilak kutxa azalean zegoen zinta amerikarretik pasatu zuen azkazala.

“Zergatik ez dion begiratzen igorleari? Ea nork bidali duen.” Waldok bere bihotzaren taupadak entzuten zituen. Oinkaden bibrazioa sentitzen zuen. Laster izango zen.

Marshak kutxa inguratu eta tintaz zikindutako etiketa irakurri zuen.

“Ai ama, Waldok bidalia dun.”

“Babu hori!” esan zion Sheilak. Waldo, ilusioz jota, dardarka ari zen.

“Zabaldu, behintzat”, esan zion Sheilak. Biak ahalegindu ziren hegal grapaduna altxatzen.

“Kaka zaharra,” esan zuen Marshak, kexuz, “iltzatu egin din.” Tira egin zioten hegaletik berriro.

“Jainko maitea, zulagailu elektriko bat behar dinagu hau irekitzeko!” Berriro tira egin zuten.

“Ezin zionagu heldu.” Geldi zeuden biak, arnasestuka.

“Guraizeak ekarriko ditun?”, esan zuen Sheilak. Marsha sukaldera joan zen korrika, baina josteko guraizeak baino ez zituen aurkitu. Eta orduan gogoratu zen aitak tresneria sotoan zeukala. Behera joan zen azkar eta, itzuli zenean, bi heldulekuko labana industrial handi bat zekarren eskuan.

“Hauxe aurkitu dudan onena.” Hatsa bahiturik zuen, erabat.

“Tori, heuk egin: hiltzear nagon.” Peluxe-zko sofa handi batean murgildu zen eta hats egin zuen ozenki. Sheila saiatu zen zinta amerikarraren eta kartoizko hegalaren artean zirrikitu bat egiten, baina labanaren ahoa handiegia zen, eta ez zegoen egiterik.

“Pikutara!” esan zuen, erabat amorratuta. Orduan, irribarre batez:

“Badinat ideia bat.”

“Zer?”, galdetu zion Marshak. “Begiratu,” erantzun zion Sheilak, hatz bat burura eramanez.

Paketearen barruan Waldo hain zegoen paralizatuta ezen ia ezin baitzuen arnasarik hartu. Beroagatik, azkura zuen larruazalean eta bihotzaren taupadak, berriz, eztarrian nabaritzen zituen. Laster izango zen.

Sheila tente samar jarri eta paketearen beste aldera joan zen. Orduan belaunikatu, labanaren bi heldulekuei eutsi, arnasa sakon hartu eta paketearen erditik pasatu zuen xafla luzea, zinta amerikarra zeharkatuz, kartoia zeharkatuz, enbalajea zeharkatuz eta, danba!, Waldo Jeffersen burua-bera-ere zeharkatuz eta hautsiz. Eta buruak arku erritmiko gorritxoak eragin zituen, goizeko eguzkipean leunki dar-dar egiten zutenak.